

ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

Lehen Hezkuntzako 6. Mailaren ebaluazioa. 1999

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILAREN EBALUAZIOA. 1999

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2002

Lehen Hezkuntzako 6. mailaren ebaluazioa, 1999 / [txostenaren egilea, Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea = Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2002

or. ; cm.

Badu gainera atari eta orrialdekatze propioa behekoz gora gaztelaniaz:
“Evaluación de 6º curso de Educación Primaria, 1999”

ISBN 84-457-1860-6

1. Lehen Mailako Hezkuntza – Euskadi – Ebaluazioa. 2. Eskola-umeak – Eskola-emaitzak – Euskadi. I. Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. II. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. III. Izenburua (gaztelania).
373.3.012(460.15)
373.312.127(460.15)

Argitaraldia: 2002ko urriak 1

Ale kopurua: 1.000 ale

© Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Txostenaren egilea: Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikerketzeko Erakundea
Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa

Impresión: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - 20800 Zarautz

ISBN: 84-457-1860-6

L.G.: S.S. 1170/02

Aurkibidea

Aurkezpena	5
Sarrera	7
Ebaluazioaren ezaugarriak	9
EAEko EMAITZA OROKORRAK	13
Gaztelaniaren arloan lortutako emaitza orokorrak	15
Probaren deskribapena	15
Gaitasun mailen deskribapena	15
Eduki moten arabera emaitzak	16
Zenbait alderdi esanguratsu	18
Hainbat item	19
Euskararen arloan lortutako emaitza orokorrak	27
Matematikaren arloan lortutako emaitza orokorrak	29
Probaren deskribapena	29
Gaitasun mailen deskribapena	29
Eduki moten arabera emaitzak	32
Zenbait alderdi esanguratsu	34
Hainbat item	35
Ingelesaren arloan lortutako emaitza orokorrak	41
Probaren deskribapena	41
Gaitasun mailen deskribapena	41
Hizkuntza gaitasunak	43
Zenbait alderdi esanguratsu	44
Hainbat item	46
Emaitzak, estratifikazio-aldagaien arabera	51
Emaitzarekin erlazionaturako hainbat aldagai	51
Emaitzak, arloen arabera	52
Laburbilduz	55

Aurkezpena

Hau dugu Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko erakundeak egindako lehen argitalpena. Nahiz eta erakunde hau sortu aurretik eginiko ebaluazioa izan, bertako teknikari eta espezialistak izan dira datu-analisia eta txostenaren idazkuntza burutu dituztenak.

Argitalpen honek garbi adierazten du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak dituen asmoak eta konpromezua: Euskal Hezkuntza Sistemaren ebaluazio eta ikerketa bultzatu eta garatzea. Ebaluazioaren helburua etengabeko hobekuntza baldin bada, nahitaezkoa da kalitatearen eremuan serioski aurrera egiteko eta ikerketa da bere ezinbesteko osagarria, Sistema sakontasun gehiagoz aztertu eta nondik norakoak ulertzeko gakoak eskaintzen dizkigu eta.

ISEI-IVEI-ren lanak jarraipena behar du gainera, ebaluazio bakoitza momentu bateko errealitatearen islada baita eta gehien interesatzen zaiguna tendentziak dira.

Lehen Hezkuntzaren Ebaluazio honen emaitza kalean izan orduko beste bat prestatzen ibiliko gara, baina abiapuntu batekin. Erreferente horrek ondorengo analisi eta konparazioak ahalbideratuko ditu.

Txosten honetarako erabilitako datuak ikerketa berrien oinarri bilakatuko dira eta gure herriko arazo eta premiei aurre egiten lagunduko digutela espero dut, gure hezkuntza politika kalitatea, bikaintasuna eta aukera-berdintasunari begira egina dago eta.

Hezkuntza. Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua
ANJELES IZTUETA AZKUE

Sarrera

1.999 urtean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, INCE erakundeak eta gainontzeko Autonomia Erkidegoetako hezkuntza administrazioek batera, Lehen Hezkuntzako ebaluazioari ekin zioten. Ebaluazioak hainbat helburu bete nahi zituen: alde batetik, Lehen Hezkuntzako ikasleek Gaztelania, Ingelesa eta Matematika arloetan zuten ezagupen maila ezagutzea. Bestetik, lortutako emaitzak duela lau urte (1.995) egindako ebaluazioarekin lortutakoekin erkatzea; eta, azkenik, ikasleen errendimendua testuinguruko eta ebaluazio prozesuetako faktoreekin erlazionatzea.

Aipatu diren helburu guztiak lortzeko, ebaluatu beharreko arlo bakoitzeko bosna eredu desberdin landu ziren. Proba guztiek zati komun bat zuten, arlo bakoitzeko 18-24 item inguru (1.995eko ebaluazioan jada erabili ziren itemak); horrela, bi ebaluazioen emaitzak alderatzeko datuak lortuko ziren. Probak gaztelaniaz landu ziren eta ondoren euskaratu, D ereduko ikasleen artean banatzeko.

Modu berean, ikasle, irakasle, zuzendaritza talde eta familien artean ere galdeketak banatu ziren; horrela, ikasleen errendimenduaren eta testuinguruko eta hezkuntza prozesuko faktoreen arteko erlazioa ezagutzeko eta zehazteko.

Ebaluazioan Euskal Autonomia Erkidego osoko 76 zentzoko 1.555 ikaslek parte hartu zuten. Ikastetxe publikotan eta itundutan egin zen ebaluazioa, ausaz aukeratutako ikastetxetan, eta EAEko hiru

hizkuntz ereduetan. 72 tutore, 136 koordinatzaile, 70 zuzendaritza talde, ingeleseko 70 irakasle eta 1.363 familia ere izan ziren ebaluazioaren protagonista.

Orain aurkezten den txosten honetan ebaluatutako arloetan ikasleek azaldutako errendimenduaren emaitzak ikus daitezke. 1999 urteko ebaluazioan lortutako datuak 1.995ekoan lortutakoekin alderatu dira. Horrez gain, 1.995ean euskararen arloan egindako ebaluazioaren emaitzak ere bildu dira honako txosten honetan. Eta lagina osatzen duten geruzen artean egindako konparaketa ere bildu da txosten honetan: zentro publikoen eta itunduen arteko desberdintasunak, zentro handien eta txikien artekoak, eta hizkuntz eredu desberdinen artekoak, hain zuzen.

Ebaluazioaren baitan galdetutako hainbat aldagaien eragina ere aztertu da eta horien emaitzak islatu dira, besteak beste: aitaren eta amaren ikasketak, urteko irakastorduak, eskolaz kanpoko ingeles eskolak, eta abar.

Txosten honetan ez da lortutako emaitzen eta testuinguruko eta prozesuko aldagaien arteko erlazioa aztertu. Azterketa hori beranduago egingo da.

Amaitzeko, jarraian, arlo bakoitzean erabili diren zenbait item aipatuko ditugu.

Ebaluazioaren Ezaugarriak

HELBURUAK

Lehen Hezkuntzaren amaieran, ikasleek Gaztelania, Matematika eta Ingelesa arloetan duten ezagupen maila ezagutzea.

Ikasleen errendimendua testuinguruko eta hezkuntza prozesuetako faktoreekin erlazionatzea.

ESPARRUAK

Euskal Autonomia Erkidegoa da dagokigun geografia esparrua.

Azterketan kontuan hartuko den populazioa, 1998/99 ikasturtean Lehen Hezkuntzan matrikulatutako ikasle guztiek osatzen dute, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak izan ezik.

LAGINA

Lagina aukeratzeko jarraian zehazten diren irizpideak hartu ziren kontuan:

Zentroen geruzapena, gure erkidegoan eskaintzen diren ereduaren arabera (A, B eta D), eta sareen arabera (publikoa eta itundua). Geruzak zehaztu ondoren, seigarren mailan 10 ikasle baino gutxiago zuten zentroekin azpilagin bat osatu zen

Multzoen bitartez; hasteko, geruzen arabera zentroak ausaz aukeratu ziren, zentro bakoitzeko ikasle kopurua kontuan hartuta. Bigarrenik, aurretik aukeratutako zentro bakoitzean Lehen Hezkuntzako seigarren mailako gela bakar bat aukeratu zen ausaz.

Laginarekin baitan kontuan hartu dira:

Aukeratutako geletako ikasleak, hezkuntza premia bereziak dituztenak izan ezik.

Ikasleria	A Eredua	B Eredua	D Eredua	Guztira
Publikoak	141	151	249	541
Hitzartuak	469	270	275	1.014
Guztira	610	421	524	1.555

Laginen tamaina

		<i>Proiektatua</i>	<i>Lortua</i>
Zentroak	Lehen H.ko 10 ikasle edo gehiago	68	71
	Lehen H.ko 10 ikasle edo gutxiago	6	5
Ikasleak/Gela ratioa	Lehen H.ko 10 ikasle edo gehiago	23	21,7
	Lehen H.ko 10 ikasle edo gutxiago	6	5,9
Ikasleak	Guztira	1.612	1.555
Tutoreak		76	72
Koordinatzaileak		228	136
Zuzendaritza taldeak		76	70
Ingeleseko irakasleak		76	70
Familiak		1.612	1.363

LAGINA MUGATZEA

Geruza bakoitzeko populazioaren tamainarekiko proportziozkoa.

LAGINAREN ZEHAZTASUNA A PRIORI

Mugatutako ikasleen laginaren tamainen bitartez lortuko diren batez besteko kalkulu eta ehunekoaren konfiantza marjina %95ekoa da, eta errore marjinak honako hauek dira:

- Batez bestekoak: $\pm 0,06s$ (s: desbideraketa tipikoaren kalkulua)
- Ehunekoak: $\pm\%3$

Aipatu zehaztasuna lagina bere osotasunean hartuta lortu da, hau da, ez da aintzat hartu lagin bereizi bat dela, izan ere, laginaren geruza guztiak banan banan zehaztea oso zaila da. Aurretiko azterlanen arabera, errendimenduaren aldagaien banaketa homogeneoa da geruza bakoitzaren baitan, eta hori dela eta, hain zuzen, laginak, geruzapena kontuan hartu gabe egindako kalkuluen zehaztasuna neurri handi batean gainditzen du.

PROBAK ETA GALDEKIZUNAK

PROBEN EREDUA

Arlo bakoitzari dagokionez bosna eredu landu ziren. Eredu bakoitzean hainbat galdera komun eta beste hainbat berariazko egin ziren. Ereduak txandaka banatu ziren gela bakoitzean, ikasle bakoitzak arlo bakoitzari zegokion eredia betetzeko. Lagineko ikasleen bostenak inguruk burutu zituen proba bakoitzaren ereduak.

Galdera komunak 1994/95 ikasturteko Lehen Hezkuntzako seigarren mailaren ebaluaziotik hartu ziren; horrela, bi proben, alegia, aurtengo probaren eta 1994/95 ikasturtekoaren emaitzak alderatzeko modu bikaina eskuratuz.

“Laginketa matriziala” da probak osatzeko orduan jarraitu den sistema eta, horri esker, galdera gehiago egin daitezke eta curriculuma zehazkiago azter daiteke.

Eduki multzo guztietako galderak egin ziren.

GALDERA MOTAK

Galderen erantzun bezala lau aukera eskaini ziren; bakar bat zen zuzena. Gaztelaniaren proban, gainera, zenbait galdera ireki egin ziren: batzuetan erantzun laburra eskatu zen, beste batzuetan, berriz, luzea.

Proba orotan, ebaluatutako arloen aurrean ikasleek azaldutako jarrerei buruzko galdera multzo bat egin zen.

TESTUINGURUARI BURUZKO GALDEKIZUNA

Ikasleen testuinguruari, hezkuntza testuinguru orokorrari eta hezkuntza prozesuari eta hezkuntza inguruneari buruzko informazioa lortzeko hainbat galdekizun landu ziren, hain zuzen:

- Ikaslearen galdekizun orokorra.
- Tutoretzarena.
- Zikloko hiru koordinatzaileena.
- Zuzendaritza taldeena.
- Familiena.

EZARPENA

EZARPEN DATA

1999ko maiatza eta ekaina.

EZARPEN PROZEDURA

Bi egunetan garatutako bost saiotan egin zen; normalean, bi egunak jarraian izan ziren. Lehenengo egunean, lehenengo bi saioetan bi proba egin ziren, eta hirugarren eguna, ikasleen galdekizun orokorrari erantzuteko utzi zen. Bigarren egunean egin ziren azken bi probak.

PROBEN IRAUPENA

Proba bakoitza burutzeko beharrezko denbora: 60 minutu.

Ezarpenak egin ondoren, mugatutako denbora egokia ote zen aztertzea izan zen lehenengo zeregina, ikasle gehienek denbora gutxiago behar izan baitzuten probak burutzeko.

IKASLEEN ERRENDIMENDUA ZEHAZTEA

Itela Erantzuteko Teoria (IET) erabiltzeko eskala bat osatu behar da batez bestekoaren eta desbideraketa tipikoaren arabera ikasleen banakako errendimendua zehazteko, IET ereduak ez baitu hori guztia egiten.

Itela Erantzuteko Teorian oinarritutako ebaluazioen bitartez, ikasleen banakako errendimenduaren emaitzak 0-500 eskala batean aurkezten dira, 250eko batez bestekoarekin eta 50eko desbideraketa tipikoarekin.

Eskala horretan, batez bestekoa zehazteaz gain, batez bestekotik +/- 1 4 desbideraketa tipikoko desberdintasuna duten erreferentzia puntuak ere zehaztu dira, hain zuzen: 50, 100, 150, 200, 250, 300, 350, 400, 450.

Eskalak esanahia lor dezan eta curriculumarekin erlazionatzeko, erreferentzia puntu bakoitzaren kasuan, puntu bakoitzeko banakako errendimenduaren puntuazio bera duten edo gainditzen duten ikasleek ezagutzen duten eduki multzo bat, eta ezagutza eragiketen multzo bat zehaztu dira.

Erreferentzia puntua eta ikasleen eduki multzoa eta ezagutza eragiketen multzoa elkarrekin erlazionatzeko, lehenik eta behin, puntu bakoitzarentzat galderak zehaztu dira, eta ondoren, galdera horiei behar den bezala erantzuteko ezagupenak eta trebetasunak adierazi.

Erreferentzia puntu bakoitzari galdera bat dagokio, betiere, puntu horretan lortutako erantzun zuzenak %65 baino gehiago badira, eta ondorengo erreferentzia puntu lortutakoak %35 erantzun zuzen gutxiago baditu.

Ikasleen errendimendua zehazteko eta emaitzak aurkezteko honako urrats hauek eman ziren:

Subjektu bakoitzak ikasgai bakoitzean izandako errendimenduaren puntuazioen kalkulua. BILOG programaren baitako itxaropena a posteriori (IAP) prozedura bayesiarra erabili zen.

Erreferentzia puntuak zehaztea, eskaletan zehaztuta maila bakoitzaren ezagupenak eta trebetasunak islatzeko. Arlo bakoitzari dagokion eskalan ikasle bakoitzaren puntuazioa lortu ondoren, eskalako puntuetarako irizpideak zehaztu ziren. Hau da, aurretik zehaztutako tarteko puntuak dituzten edo horiek gainditzen dituzten ikasleek dakitena eta ez dakitena zehaztea zen helburua.

EAEko EMAITZA OROKORRAK

Gaztelaniaren arloan lortutako emaitza orokorrak

Probaren deskribapena

Gaztelaniaren arloan egindako probaren helburu nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoan, Lehen Hezkuntzaren amaieran arloko helburu jakin batzuen lorpen maila ebaluatzea da.

Ebaluazioa hizkuntz trebetasunen inguruan antolatu da: ahozko ulermena, idatzizko ulermena eta idazmena; guztira 105 item itxi dira.


Gaitasun mailen deskribapena

Mailaren arabera ikasleak eduki beharreko ezagupenak, trebetasunak eta gaitasunak dira, hain zuzen, maila bakoitza definitzen duten ezaugarriak. Hasiera batean, maila bakoitzari dagozkion ahalmenak ikasleek dituztenak izan ohi dira. Ikasle bat maila jakin batean badago, maila horri dagozkion gaitasunetan eta aurreko mailaie dagozkienetan trebetasuna erakutsi duelako izan ohi da.

Maila horien arabera zehaztuko dira, zailtasunaren arabera, curriculumean lantzen diren ahalmenak, eta horiek irakasleentzat beren esku hartzea antolatzeko orduan lagungarri izatea espero da.

150 maila	200 maila	250 maila	300 maila
<ul style="list-style-type: none">Literatur testuak (deskribapenak) eta testu ikonikoak (iragarkiak) literalki ulertzen dituzte.Testu ikonikoetan agertzen diren pertsonaiei (binetak) buruzko inferentziak egiten dituzte.Hiztun baten esaldi baten komunikazio helburua bereizten dute.Erabilera arrunteko hitzen esanahia ezagutzen dute.	<ul style="list-style-type: none">Gutun baten edukia literalki ulertzen dute.Testu informatzaile (albistea) batean agertzen diren pertsonaiei buruzko eta testu ikoniko (iragarkia) batean emandako informazioari buruzko inferentziak egiten dituzte.Testu informatzaile bat berrantolatzen dute.Testu informatzaile bati buruzko iritziak ematen dituzte.	<ul style="list-style-type: none">Literatur testu baten (bakarrizketa) edukia literalki ulertzen dute.Antzerkiko testu batean agertzen diren pertsonaien izaerari buruzko inferentziak egiten dituzte.	<ul style="list-style-type: none">Literatur testu baten (eleberria) elkarrizketa bat literalki ezagutzen dute.Dibulgaziozko testu bat berrantolatzen dute.Literatur testu batean (eleberria) pertsonaien arteko elkarrizketari buruzko inferentziak egiten dituzte.


Ikasleen mailakako banaketa



50 puntuko heinak zehaztu dira; bakoitza desbideraketa tipiko bati dagokio. Datu honek ikasleen batez bestearekiko distantzia islatzen du. Banaketa arruntetan, hala nola, gure kasuan, +/- 1'6 desbideraketa tipikoak hartzen dira kontuan.

1999 urtean Gaztelanian lortutako emaitzek 1995eko emaitzak zertxobait gainditu dituzte. Aurrerantzean egingo diren ebaluazioen bitartez jakin ahal izango da gorako noranzkoari eutsiko ote zaion, edo emaitzak uneko egoerak eragina ote diren, izan ere, batez bestekoa 250 izatetik 300 izatera pasa da 1999an.


95-99 ebaluazioarekiko konparaketa. Gaztelania



Eduki moten arabera emaitzak

Hizkuntz trebetasunak


Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleek ebaluatu diren hiru hizkuntz trebetasunei dagokienez emaitza anitzak lortu dituzte. Bereziki azpimarragarria da idatzizko ekoizpenaren item itxietan lortutako erantzun zuzenen kopuru altua (%68,3); ahozko zein idatzizko ulermenaren item itxien kasuan ez da hain emaitza onik lortu. Emaitzarik eskasena ahozko ulermenari dagokio (%58,5); idatzizko ulermenari dagokionez, %65,9ko emaitza lortu da, eta azken horrek ia bete du probaren batez besteko orokorra (%66).

Erantzun zuzenen batez bestekoa, hizkuntz trebetasunen arabera**Ulermen mailak**

Testuak mota desberdinen arabera sailkatzeaz gain, ulermen itemak burutu beharreko zereginaren arabera ere sailkatu dira. Honako bost ulermen maila hauek bereizi dira: ulermen literala (15 item), informazioa berrantolatzea (25), ulermen inferentziala (25), irakurketa kritikoa (16) eta hautematea (11).


Ulermen mailen arabera lortu diren emaitzei dagokienez, seigarren mailako ikasleek errazago erantzun dituzte ulermen literalari buruzko itemak, erantzun zuzenak %74,9 izan direlarik; ondoren ulermen inferentzialari buruzko itemak aurkituko ditugu, %67,4 erantzun zuzenekin; hirugarren lekuan, %65,2 erantzun zuzenekin, informazioa berrantolatzeko gaitasuna dago, laugarren hautematea, %59,6ko erantzun zuzenekin eta, azkenik, irakurketa kritikoari buruzko

itemak geratu dira; beraiek lortu dute erantzun zuzenen ehuneko baxuena, hain zuzen, %58,9.

Erantzun zuzenen batez bestekoa, ulermen mailen arabera**Idatzizko ekoizpena**

Ikasleen idatzizko ekoizpena ebaluatzeko 18 item erabili dira. Itemak lau multzotan banatu dira: silabaren azterketa, 2 item, hitzaren azterketa, 4 item, perpausaren azterketa, 5 item, eta testuaren azterketa, 4 item. Item guztiak itxiak dira eta zenbait erantzun ageri dira aukeran. Orotara, proba osoan erantzun zuzenen ehuneko altuena hementxe lortu da (%68,3).

Erantzun zuzenen batez bestekoa, idatzizko ekoizpenen arabera



Idatzizko ekoizpenean lortutako emaitzei erreparatuz gero, ebaluatu diren lau jardueren artetik bakar batek gainditu du idatzizko ekoizpenaren batez bestekoa. Aipatu jardueran testuekin erlazionatutako hainbat item biltzen da. Idatzizko ekoizpenaren batez bestekotik behera geratzen diren eta erantzun zuzenen ehunekoa baxuagoa izan duten jarduerak dira: silaba, hitza eta perpausa. Proba orokorrean lortutako erantzun zuzenen batez bestekoarekin erkatuz gero, testuarekin eta perpausarekin erlazionatutako itemak gainetik daude (%73,4 eta %66,6), eta hitzarekin erlazionatutako erantzun zuzenen ehunekoa da baxuena (%50,7), nabarmenki baxuena, gainera. Azkenik, silaben erantzun zuzenen ehunekoa (%59,5) eta batez besteko orokorraren erantzun zuzenen ehunekoa antzekoak dira.

Zenbait alderdi esanguratsu

Ahozko ulermenak lortutako emaitzak idatzizko ulermenak lortutakoak baino baxuagoak izan dira, hortaz, ahozko eta idatzizko ulermenaren batez bestekoa baino baxuagoak.

Idatzizko ulermenaren emaitzak eta probaren batez besteko globalarenak antzekoak dira. Hiru testu motak aztertuz gero, emaitza onena testu informatzailearen ulermenean lortu dela ikusiko dugu, ondoren testu ikonikoa dagoelarik; literatur testuaren kasuan lortutako emaitzak dexente eskasagoak dira.

Ulermen mailei dagokienez, ikasleak, testuko datuak esperientzia pertsonalarekin lotu eta iritzia emateko gai dira; gainera, testuan bertan idatzita ageri ez den informazioa lortzeko gai dira, bai eta testuaren inguruko hipotesiak planteatzeko ere. Bestalde, testu bateko informazioa berrantolatzen dakite, ideiak sailkatzeko eta laburbiltzeko gaitasuna dute, eta gauzak interpretatzeko gai dira, eta ideiak laburtzeko, informazioak sailkatzeko, testuak sailkatzeko eta egitura desberdinak bereizteko ere bai.

Ikasleei zailagoa egiten zaie testu desberdinen esanahia ulertzea eta bertan esaten denari buruzko balio judizioak adieraztea: pertsonaien jarrerak, garatzen diren prozesuak, gogoeta egiteko aukerak, eta abar, testuko eta errealitateko elementuak elkarrekin erlazionatuz. Testuko zenbait erlazio logiko antzemateko eta testuaren kalitate estetikoaz ohartzeko orduan zailtasunak izan dituzte ikasleek (ahozko elementuak eta ez ahozkoak, hizkuntza artistikoaren berezko elementuak kategorizatzen dituzte, eta abar.)

Hainbat item

Jarraian, Gaztelaniako arloko probaren zenbait item aurkeztuko ditugu. Itemak hizkuntz trebetasunen eta testu moten arabera daude antolatuta. Adibide bakoitzean zehazten dira erantzun kopuruari eta erantzun zuzenen ehunekoari buruzko datuak. Item bakoitzean, Itema Erantzuteko Teoriaren (IET) arabera lortutako puntuazioari buruzko datuak ere zehazten dira, txosten honen 15. orrialdean agertzen den gaitasun maila bakoitzari dagokionez.

Itema burutu duen ikasle kopurua aldatzea gerta daiteke, item bakoitza hainbat eredutan azal baitaiteke (proba bost eredu desberdinek osatu zuten).

Idatzizko ulermenaren itemak testu mota desberdinetan oinarritutakoak ziren; testua irakurri ondoren, ikasleari testuarekin erlazionatutako hainbat item aurkeztu zitzaizkion. Jarraian ageri diren adibideetan itemari dagokion testu mota zehazten da.

1. ADIBIDEA

Testua: amona batek idatzitako egunkari baten zati bat..

En opinión de la abuela, ¿qué hubiera sido peor para Karli?

- Que se quedara con ella.....1
- Que se quedara a vivir solo.....2
- Que se fuera con unos tíos.....3
- Que se lo llevaran a un orfanato.....4*

Item honi dagokion multzoa:

Idatzizko ulermena: LITERATUR TESTUAK. Bakarrizketa

Ulermen maila: Ulermen literala

Erantzun kopurua: 311. Erantzun zuzenen ehunekoa: %81

Erantzun zuzenak, gaitasun mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%22,2	%24,2	%76,9	%97	%100	%100

Item hori 311 ikaslek egin dute. 100 gaitasun mailari dagokionez (5 ikasle), bakar batek erantzun du zuzen (%22). Hurrengo gaitasun mailan (150), berriz, %24 izan dira emandako erantzun zuzenak, eta horrela, gaitasun mailak gora egin ahala, erantzun zuzenen ehunekoak.

2. ADIBIDEA

Testua: Aita alabaren arteko elkarrizketa baten zatia.

La decisión de Anastasia de asistir a clase se produce...

Porque es forzada a ir	1
Porque es la clase de su padre	2*
Porque le han dado razones muy convincentes	3
Porque le han ofrecido una estupenda recompensa	4

Item honi dagokion multzoa:

Idatzizko ulermena: LITERATUR TESTUAK. Elkarrizketa.

Erantzun-kopurua: 310. Erantzun zuzenen ehunekoa: %53

Erantzun zuzenak, gaitasun-mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%0	%29,7	%48,0	%50,8	%91,1	%85,7

3. ADIBIDEA

Testua: Sánchez Ferlosio, *Industrias y andanzas de Alfanhuítik* hartutako zatia.

La descripción del jardín es:

Breve	1
Fantástica	2
Realista	3*
Imaginativa	4

Item honi dagokion multzoa:

Idatzizko ulermena: LITERATUR TESTUAK. Deskribapena

Ulermen-maila: Ulermen inferentziala

Erantzun-kopurua: 309. Erantzun zuzenen ehunekoa: %17

Erantzun zuzenak, gaitasun-mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%40	%12,9	%22,6	%13,4	%19,0	%25,0

Item hori 309 ikaslek egin dute. 100 gaitasun mailari dagokionez, %40k erantzun zuzena eman du; 100 gaitasun mailan 5 ikasle besterik ez dagoela kontuan hartuta, emaitza ausaz lortutakoa izan daiteke. 150 gaitasun mailan, berriz, ikasleen %12,9k erantzun zuzena eman du; 200 mailan %22,6k eta, 250 mailan, berriz, %13,4k; 300 gaitasun mailan %19k asmatu du eta, amaitzeko, 350 mailan %25ek. Emaitzok ikusita, item hau oso zaila dela ondoriozta daiteke.

4. ADIBIDEA

Testua: ingurumena errespetatzeko jarraibideak.

¿Qué eslogan crees que es más adecuado para el texto que has leído?

No vayas al campo. Se estropea	1
Vete al campo y haz lo que quieras. Eres libre	2
El cuidado del Medio Ambiente es tarea de todos	3*
El Medio Ambiente necesita muchos cuidados.	
Sólo los mayores pueden conservarlo	4

Item honi dagokion multzoa:

Idatzizko ulermena: TESTU INFORMATZAILEA. Jarraibideak.

Ulermen-maila: Irakurketa kritikoa

Erantzun-kopurua: 311. Erantzun zuzenen ehunekoa: %94

Erantzun zuzenak, mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%11,1	%69,7	%99,1	%100	%100	%100

5. ADIBIDEA

Testua: Hizkuntzak ikasteko eta aisialdiko jarduerak garatzeko hainbat ikastarori buruzko informazioa biltzen duen gutuna.

¿Qué tienes que hacer si deseas más información?

Hablar con otros amigos socios	1
Consultar el folleto informativo	2
Llamar por teléfono al Club Saturno	3
Dirigirte a cualquier oficina de la Caja de Ahorros	4*

Item honi dagokion multzoa:

Idatzizko ulermena: TESTU INFORMATZAILEA. Gutuna

Ulermen-maila: Ulermen literala

Erantzun-kopurua: 307. Erantzun zuzenen ehunekoa: %85

Erantzun zuzenak, gaitasun-mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%57,1	%46,2	%78,0	%95,1	%96,2	100%

6. ADIBIDEA

Testua: dibulgaziozkoa, baleei buruzkoa

¿Cuál de estas frases es la correcta?

- | | |
|---|----|
| La orca es potente, gris y voraz | 1 |
| La orca es inteligente, lenta y pacífica | 2 |
| La orca es rápida, inapetente y asesina | 3 |
| La orca es superdepredadora, ágil y buena compañera | 4* |

Item honi dagokion multzoa:

Ahozko ulermena: TESTU INFORMATZAILEA. Dibulгатiboa

Ulermen-maila: Ulermen literala

Erantzun-kopurua: 1548. Erantzun zuzenen ehunekoa: %56

Erantzun zuzenak, mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%30,0	%45,4	%42,3	%61,5	%73,7	%90,6

Item hori 1548 ikaslek egin dute, baleei buruzko testu dibulгатiboa ahozko ulermenean landu zelako eta lagin osoak egin zuelako.

7. ADIBIDEA

Testua: Familia bat islatzen duen bineta bat.

¿Qué personaje aparece en la pantalla de la televisión?

- | | |
|----------|----|
| Tarzán | 1 |
| Batman | 2* |
| Mafalda | 3 |
| Superman | 4 |

Item honi dagokion multzoa:

Idatzizko ulermena: TESTU IKONIKOA. Bineta

Ulermen-maila: Ulermen literala

Erantzun-kopurua: 311. Erantzun zuzenen ehunekoa: %97

Erantzun zuzenak, gaitasun-mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%100	%88,9	%96,6	%99,1	%100	%100

8. ADIBIDEA

Testua: Zirku bati buruzko iragarki bat, ikuskizunari buruzko informazio guztiarekin.

¿Con qué palabra tiene más relación el anuncio que acabas de leer?

Con el dinero	1
Con la belleza	2
Con la cultura	3
Con lo exótico	4*

Item honi dagokion multzoa:

Idatzizko ulermena: TESTU IKONIKOA. Iragarkia

Ulermen-maila: Hautematea

Erantzun-kopurua: 307. Erantzun zuzenen ehunekoa: % 44

Erantzun zuzenak, gaitasun-mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%28,6	%15,4	%35,2	%50,4	%63,5	%42,9

9. ADIBIDEA

Testua: Zirku bati buruzko iragarki bat, ikuskizunari buruzko informazio guztiarekin.

¿En qué otro lugar más apropiado podrías encontrar los mismos animales del anuncio?

En el Zoo	1
En el Circo	2
En la Plaza de Toros	3
En el lugar de procedencia (entorno natural)	4*

Item honi dagokion multzoa:

Idatzizko ulermena: TESTU IKONIKOA. Iragarkia

Ulermen-maila: Irakurketa kritikoa.

Erantzun-kopurua: 307. Erantzun zuzenen ehunekoa: %30

Erantzun zuzenak, mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%14,3	%3,8	%24,2	%26,8	%57,7	%85,7

10. ADIBIDEA

De las siguientes palabras señala la que tiene un diptongo.

Leer	1
Caoba	2
Tebeo	3
Veinte	4*

Item honi dagokion multzoa:

Idatzizko ekoizpena: SILABEN erabilera

Erantzun-kopurua: 309. Erantzun zuzenen ehunekoa: %57

Erantzun zuzenak, gaitasun-mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%0	%35,5	%56,0	%57,5	%72,4	%100

11. ADIBIDEA

Señala el adjetivo que falta en esta secuencia:
Helado, frío,....., caliente, hirviendo

Tibio	1*
Limpio	2
Fresco	3
Congelado	4

Item honi dagokion multzoa:

Idatzizko ekoizpena: HITZEN erabilera

Erantzun-kopurua: 309. Erantzun zuzenen ehunekoa: %43

Erantzun zuzenak, mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
0%	12,9%	28,6%	47,2%	74,1%	75,0%

12. ADIBIDEA

Señala la frase que esté bien puntuada:

El tren llegará a las ocho viene con mucho retraso	1
El tren llegará, a las ocho, viene con mucho retraso	2
El tren llegará a las ocho; viene con mucho retraso	3*
El tren llegará, a las ocho viene con mucho retraso	4

Item honi dagokion multzoa:

Idatzizko ekoizpena: ESALDIEN ERABILERA

Erantzun-kopurua: 311. Erantzun zuzenen ehunekoa: %73

Erantzun zuzenak, mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%0	%44,4	%67,8	%75,9	%94,1	%87,5

13. ADIBIDEA

Señala la frase que elegirías para continuar el texto:

Enormes gotas de lluvia se estrellaban contra el polvo. El niño y su madre llegaron hasta una roca

Duras y blancas como el mármol	1
Levantó las orejas y olfateó el aire	2
Padre e hijo descansaron sobre la roca unos instantes	3
Los relámpagos destellaban a su alrededor como látigos blancos	4*

Item honi dagokion multzoa:

Idatzizko ekoizpena: TESTUEN erabilera


Erantzun-kopurua: 1548. Erantzun zuzenen ehunekoa: %54

Erantzun zuzenak, mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%10,0	%23,3	%47,0	%64,8	%84,5	%96,9

Euskararen arloan lortutako emaitza orokorrak

1999 urtean ez zen euskarazko probarik egin, hortaz, 1995eko emaitzak dira erabilgarri daudenak. Ereduen arabera aurkeztu dira, izan ere, hizkuntza lantzeko ordu kopurua kontuan hartuta ez da komeni batez besteko orokorrean agertzea. Horrez gain, kontuan hartu behar da, D ereduan ama hizkuntza bezala euskara duen ikasle ugari dagoela.



Matematikaren Arloan lortutako emaitza orokorrak

Probaren deskribapena

Honako proba honen helburua da, Lehen Hezkuntzako 6. Mailako ikasleek dituzten matematikako ezagupenak eta matematikako arazoiketak egiteko gaitasuna ebaluatzea; xede horrekin, hainbat kontzeptu, prozedura eta problemak ebazteko modu landu behar dira.

Proba 123 itemek osatzen dute; itemak lau eduki multzo desberdinekin daude erlazionatuta, hain zuzen: zenbakiak eta eragiketak, magnitudeak neurtzea, geometria eta informazioaren antolamendua. Horrez gain, item guztiak sailkatzeko hainbat multzo egin da: kontzeptuzko ezagupenak, prozedurak eta estrategiak eta problemen ebazpena.

Gaitasun mailen deskribapena


Maila bakoitza, ikasleak beharrezkoak dituen ezagupenek, trebetasunek eta ahalmenek definituko dute. Hasiera batean, aipatu ikasleek bereganatutakoak dira abiapuntu. Ikasle bat maila jakin batean badago, maila horri dagozkion trebetasunak, bai eta aurreko mailetakook ere, menderatzen dituela esan nahi du.

Mailen bitartez zehazten dira curriculumean lantzen diren gaitasunak; mailen zailtasun maila aldatu egiten da, eta hori guztia kontuan hartu behar dute irakasleek beren esku hartzea antolatzeko orduan.




150 Maila	200 Maila	250 Maila	300 Maila	350 Maila	400 Maila
<ul style="list-style-type: none">● Zatikien baten irudikapen grafikoa ezagutzen dute.● Luzeraren neurketa unitateak ezagutzen dituzte eta neurtu beharrekoa kontuan hartuta egokiak aukeratzen dituzte.● Irudi lau bat kubo baten sekzio bezala bereizten dute.● Eragiketa bakarrekoko problemak ebazten dituzte marrazkien laguntzarekin.	<ul style="list-style-type: none">● Neurtu behar denaren araberako, neurketarako azalera unitate egokiena erabiltzen dute.● Barra diagramak interpretatzen dituzte eta zenbakien taulen datuak bereizten dituzte eta irudikapen zuzenarekin erlazionatzen dituzte.● Gertaera baten probabilitatea kalkulatu dute porzentajea %50ekoa denean.	<ul style="list-style-type: none">● Zenbaki naturalak zatitzen dituzte eta posizioaren balioa nabarmentzen dute.● Ehunekoak interpretatzen dituzte. Kilometro/ordu erlazioa interpretatzen dakite● Magnitude bereko neurketa unitateak kalkulatu eta aldatzen dituzte, eragiketa bakar bat egin behar den kasuetan.● Pisuaren neurketa instrumentuak ezagutzen eta interpretatzen dituzte neurketa unitate bakar bat dagoenean.● Angelu horizontala eta angelu kamutsa ezagutzen eta bereizten dituzte.● Irudi lauak aztertzeko perimetroa eta azalera erabiltzen dituzte, bai eta neurketa zuzenean egiteko prozedurak ere.● Gertaera baten probabilitatea kalkulatu dute eragiketa bakar bat behar denean.	<ul style="list-style-type: none">● Zenbaki naturalak konparatzen eta ordenatzen dituzte, posizioaren balioa nabarmentzen.● Zenbaki natural baten kubo kalkulatu dute.● Zatitzailea unitatea gehi zeroak denean zatiketarik egiten dakite.● Biderketa ezagutzen dute.● Magnitude bereko neurketa unitateak kalkulatu eta aldatzen dituzte eragiketa bakar bat baino gehiago egin behar den kasuetan.● Angelu zuzena eta angelu osagarria kontzeptuak ezagutzen dituzte.● Angelu zuzenaren kontzeptua eguneroko bizitzako hainbat egoeratan erabiltzen dute.● Batuketak eta biderketa bakar baino gehiago egitea eskatzen duten problemak ebazten dituzte.● Zenbaki adierazpen desberdinetako problemak ebazten dituzte (kenketa, zatiketa, berretura...).● Marrazki baten laguntzarekin, geometria espazialeko problemak ebazten dituzte.	<ul style="list-style-type: none">● Hamarrekoen posizioaren balioa ezagutzen dute.● Zatikien eta ehunekoaren arteko baliokidetasuna ezagutzen dute.● Zatiketa unitate baten zati bezala ezagutzen dute.● Zatiketa baliokidea ezagutzen dute.● Zenbaki grafikoen bidezko hizkuntzatan adierazitako matematikako irudikapenak bereizten dituzte.● Bi unitate neurketa erabiltzen diren kasuetan, pisua neurtzeko ohiko modua ezagutzen dute.● Neurketa azalera eta neurketa unitatea kontzeptuak ezagutzen dituzte.● Irudi baliokideak irizpide topologikoen bitartez erlazionatzen dituzte.● Bertikaltasuna, horizontaltasuna eta elkarzutasuna kontzeptuak ezagutzen dituzte eta angelu zorrotza bereizten dute.● Neurriak konparatzeko problemak ebazten dituzte.● Zatikien baliokidetasuna eta neurketa unitateen baliokidetasuna ezagutzea eskatzen duten problemak ebazten dituzte.● Angeluzuzenaren azaleraren formula ezagutzea eskatzen duten problema geometrikoak ebazten dituzte.	<ul style="list-style-type: none">● Magnitude desberdinetako neurketa unitateak aldatzen dituzte.● Angelu neurriak erloju baten hartutako denborarekin erlazionatzen dituzte.● Bi eragiketa egitea eskatzen denean, gertaera bakar bat geratzeko probabilitatea kalkulatu dakite.

Ikasleen banaketa, heinen arabera



50 puntukako heinak zehaztuko dira; hein bakoitza desbideraketa tipiko bati dagokio. Datu horren bitartez, ikasleek batez bestearekiko duten distantzia ezagutuko dugu. Banaketa arruntetan, hain zuzen guri dagokigun honetan, populazioaren %90 +/- 1'6 desbideraketa tipikoaren inguruan kokatzen da.

95-99 emaitzen konparaketa, Matematika




99ko emaitzak 95ekoak baino zertxobait eskasagoak izan dira. Baliteke aipatu aldaketa egoerak eragindakoa izatea edo, gerta daiteke, aurrerantzean egingo diren ebaluazioetan berdin jarraitzea. Batez bestekoa, berriz, gaitasun maila berean zehaztu da.

Eduki moten araberako emaitzak

Lau eduki mota ebaluatu dira eta honakoak dira emaitzak: Emaitza bikainak lortu dira *Informazioa antolatzea* multzoari dagokionez, izan ere, hementxe lortu da erantzun zuzenen indizerik altuena (%65,1). Ondoren, *Geometriaren* multzoa kokatu da (%56). Aitzitik, emaitzarik eskasena *Zenbakiak eta eragiketak* (%54,9) eta *Magnitudeak neurtzea* (%53,6) multzoetan lortu dira. Hau da, probaren batez bestekoa gainditu duen multzo bakarra *Informazioa antolatzea* da; beste hiru multzoak Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekotik behera geratu dira.

Erantzun zuzenen batez bestekoa, eduki multzoen arabera




Eduki motak

Proba 123 itemek osatu dute eta honakoa izan da banaketa: 31 item kontzeptuzko ezagupenei buruzkoak izan dira; 49 prozedura eta estrategiei buruzkoak eta 43 problemen ebazpenei buruzkoak. Orohar, emaitza hobekak lortu dira prozedurei eta estrategiei buruzko itemetan, eta erantzun zuzenak %61,6 izan dira.

Prozeduren eta estrategien oinarria enuntziatuak antolatzea izan da, eta horiek ebazteko hainbat matematika eduki ezagutzea ezinbestekoa zen. *Zenbakien eta eragiketen* multzoari dagokionez, garrantzi berezia eman zaio zenbatzeko eta kalkuluak buruz egiteko estrategiak lantzeko gaitasunari, eta eragiketen algoritmoen bitartez emaitzak kalkulatzeko gaitasunari. *Magnitudeen neurketari* dagokionez, neurketak egiteko estrategia desberdinen erabilera eta neurketarako baliabideen erabilera da ebaluatu dena. *Geometriari*, berriz, gorputz eta irudi geometriko bakunak hainbat ikuspegitatik bereizteko eta irudikatze prozedurak landu dira, bai eta propietateen ezarpena ere. *Informazioa antolatzearekin* lotuta, ohiko komunikazioan ageri diren eta estatistika hizkuntzak erabiltzen dituen informazio bakunak interpretatzea eskatu da. Horrez gain, esperientzia bakunetatik abiatuta probabilitatearen kontzeptua landu da.

Erantzun zuzenen batez bestekoa, eduki moten arabera:



Kontzeptuzko ezagupenen itemek osatutako multzoan emandako erantzun zuzenak %59,2 izan dira.

Proban proposatu diren kontzeptuzko ezagupenak oinarrizkoak eta funtsezkoak dira ikasleek curriculum-a osatzen duten gainontzeko edukiak bereganatzea lortu nahi badugu, izan ere, elkarren artean lotura handia dute.

Zenbakien eta eragiketen multzoko kontzeptuzko edukietan zenbakiak eta magnitudeak ebaluatuko dira, bai eta zenbakien eta eragiketen esanahiak eta hamarrekoak ere.

Magnitudeen neurketaren multzoan, sistema metriko hamartarraren ohiko unitateak biltzen dira (luzera, azalera, bolumena, edukiera eta masa); horiez gain, denboraren eta graduen neurketa neurriak ere biltzen dira.

Proban proposatutako problemak ebazteko, egoera ezagunetan multzo desberdinetako estrategiak eta prozedurak martxan jartzea ezinbestekoa da.

Geometriaren multzoan, berriz, espazioko orientazioa eta espazioko objektuen deskribapena eta kokapena landuko dira. Horrez gain, gorputz eta irudi geometriko sinpleekin erlazionatutako edukiak landuko dira, bai eta irudikapen eta ikuspegi desberdinetatik horiek bereizteko prozedurak eta gorputz eta irudi geometrikoen hainbat ezaugarri eta oinarrizko erlazio ere.

Informazioaren antolamendua biltzen duen multzoan, ohiko komunikazioan ageri diren eta estatistika hizkuntzan erabiltzen diren informazioak interpretatzeko beharrezkoak diren edukiak landuko dira; horrez gain, probabilitatearen kontzeptua ere landuko da.

Amaitzeko, problemen ebazpenarekin erlazionatutako itemak ditugu; esparru honetan lortu dira emaitzarik eskasena, hain zuzen, %50,5 izan da erantzun zuzenen portzentajea. Horrela, eduki multzo hau da batez besteko orokorretik (%57,2) behera kokatu den bakarra.

Problemen ebazpenarekin lotutako atal honetan, eguneroko bizitzako problemak ebazteko gaitasunari garrantzi berezia eman zaio: planteatu berri den egoera ulertu, egoerari erantzuteko plan bat landu eta kalkuluak burutzeko prozedura egokienak aukeratu.

Zenbait alderdi esanguratsu

Zenbakien eta eragiketen multzoari dagokionez, ikasleak jada bereganatu ditu zenbaki sistema hamartarrarekin eta kalkuluekin lotutako trebetasunak; hala ere, ezezko perpausekin formulatutako itemen kasuan edo datuak antolatu gabe eskaini direnean, ikasleek arazoak izan dituzte itemei erantzuteko, bai eta zenbakien hurrenkerarekin lotutako itemen kasuan ere.

Magnitudeen neurketarekin lotutako multzoan, kontzeptuen bereganatze mailaren eta trebetasunen ezarpenaren artean desberdintasun nabarmena ikusiko dugu.

Geometriari buruzko multzoan, edukien araberako emaitza desberdinak lortu dira; emaitzarik onena irudikapen eta erreferentzia sistemekin erlazionatutako itemen kasuan lortu dira, ondoren, planoko eta espazioko elementu geometrikoei buruzko itemak sailkatu dira eta, azkenik, perimetroari, azalerari, eta bolumenari buruzko itemak aurkituko ditugu. Orohar, ikasleek oraindik ez dute espazioaren dimentsioa bereganatu eta, horrexegatik, zailtasunak izaten dituzte hiru dimentsioko egoeren problemen aurrean.

Emaitzarik onenak informazioa Antolatzeari buruzko multzoan lortu dira, eta horren baitan landu diren gaien artetik, irudikapen eta irakurketa grafikoa eta probabilitateak eta estatistika izan dira bikainenak. Lehenengoaren kasuan bigarrenaren kasuan baino emaitza hobek lortu dira.


Hainbat item

Matematikako probaren hainbat item ezagutuko ditugu jarraian; eduki multzoen arabera antolatu dira. Adibide bakoitzarekin batera, emandako erantzun kopurua eta horien artetik zuzenen ehunekoa ere zehaztuko da. Era berean, itema osatzen duten gaitasun maila bakoitzari dagokionez lortutako puntuazioa ere zehaztuko da, Itemari Erantzuteko Teoriaren (IET) arabera kalkulatu.

Itema egin duen ikasle kopurua ez da beti berdina izan, izan ere, itemak eredu desberdinetakoak ziren (proba, orotara, bost eredu osatu dute).

1. ADIBIDEA

Irudiaren zein zati agertzen da itzala egina?



- 1/8 A
- 2/8 B
- 3/8 C*
- 5/8 D

Item honi dagokion multzoa:

Eduki-multzoa: ZENBAKIAK ETA ERAGIKETAK: zenbakizko adierazpenak, ehunekoak eta zatikiak. Kontzeptuzko edukia.

Erantzun-kopurua: 311. Erantzun zuzenen ehunekoa: %95.5

Erantzun zuzenak, gaitasun-mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
-	%74.2	%95.6	%98.1	%100	%100

Azaldu berri dugun itema 311 ikaslek egin zuten. 100 gaitasun mailari dagokionez (ikasle 1), inork ez zuen zuzen erantzutea lortu; 150 gaitasun mailan, berriz, ikasleen %74,2k lortu zuen zuzen erantzutea eta 200 gaitasun mailan ikasleen %95,6k; 250 gaitasun mailari dagokionez, %98,1 izan dira erantzun zuzenak eta 300 gaitasun mailan, azkenik, %100. Hortaz, esan daiteke, 150 gaitasun mailatik aurrera, populazioaren hiru laurdenak ondo egin zuela itema, eta horrexegatik, item erraza dela

Ez da 350 gaitasun mailako emaitzarik aipatu, kasu honetan ez baitzegoen maila horretako ikaslerik.

2. ADIBIDEA

Luis, Ana eta Rikardo 180 orrialdeko liburu berdina ari dira irakurtzen. Anak liburuaren $\frac{3}{5}$ irakurri du, Luisek $\frac{4}{6}$ eta Rikardok $\frac{2}{3}$. Nork irakurri du gutxien?

Hirurak berdin	A
Rikardok	B
Luisek	C
Anak	D*

Item honi dagokion multzoa:

Eduki-multzoa: ZENBAKIAK ETA ERAGIKETAK. Zenbakizko adierazpenak, ehunekoak eta zatikiak.

Problemak ebaztea.

Erantzun-kopurua: 312. Erantzun zuzenen ehunekoa: %23.1

Erantzun zuzenak, gaitasun-mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%20,0	%2,4	%14,3	%19,8	%43,3	%78,6

Honako item hau 312 ikaslek egin dute. 100 gaitasun mailari dagokionez (5 ikasle), bakar batek erantzun du ondo (%20). Hurrengo mailan, hau da, 150 mailan, erantzun zuzenen ehunekoa %2,4 izan da, eta mailaz maila, 350 gaitasun mailan %78,6 izan dira erantzun zuzenak. Item hau item zaila da, izan ere, irakasleen laurdenak bakarrik lortu zuen ondo erantzutea.

3. ADIBIDEA

Zein unitate erabiliko zenuke arkatz bat neurtzeko?

m	A
cm	B*
hm	C
km	D

Item honi dagokion multzoa:

Eduki-multzoa: MAGNITUDEEN NEURKETA: Sistema metriko hamartarra.

Kontzeptuzko edukia.

Erantzun-kopurua: 312. Erantzun zuzenen ehunekoa: %95.2

Erantzun zuzenak, gaitasun-mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%20,0	%92,2	%95,6	%98,0	%98,3	%100

4. ADIBIDEA

Sendagaiaren erabilera orriak dio: konprimitu bakoitzak 1 g C bitamina, 20 mg sakarina eta 1305 mg sakarosa ditu. Zein da konprimituaren pisua?

- 2 g A
- 325 mg B
- 500 mg C
- 2.325 mg D*

Item honi dagokion multzoa:

Eduki-multzoa: MAGNITUDEEN NEURKETA. Sistema metriko hamartarra.

Problemak ebaztea.

Erantzun-kopurua: 309. Erantzun zuzenen ehunekoa: %44.7

Erantzun zuzenak, gaitasun-mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%14.3	%0	%27.8	%48.9	%76.7	%100

5. ADIBIDEA

Familiak batek 17 m³ ur kontsumitu ditu apirilean. Zenbat litro kontsumitzeko du familiak egunean, gutxi gorabehera?

- 17 litros A
- 170 litros B
- 510 litros C
- 570 litros D*

Item honi dagokion multzoa:

Eduki-multzoa: MAGNITUDEEN NEURKETA: Sistema metriko hamartarra.

Problemak ebaztea.


Erantzun-kopurua: 311. Erantzun zuzenen ehunekoa: %10.0

Erantzun zuzenak, gaitasun-mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%-	%12,9	%4,4	%7,7	%14,5	%66,7

6. ADIBIDEA

Zein desplazamendu egin da 1etik 2ra pasatzeko?



- 2 eskuinera, 2 behera A
- 3 eskuinera, 2 behera B*
- 3 eskuinera, 3 behera C
- 3 eskuinera, 2 behera D

Item honi dagokion multzoa:

Eduki-multzoak: GEOMETRIA. Irudikapen eta erreferentzia sistemak.

Prozedurak eta estrategiak.

Erantzun-kopurua: 314. Erantzun zuzenen ehunekoa: %78.7

Erantzun zuzenak, eduki mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%-	%55,1	%73,5	%80,8	%92,4	%100

7. ADIBIDEA

Zenbat kubo kendu ditugu 1 iruditik 2 irudia lortzeko?



- 3 A
- 6 B
- 9 C
- 12 D*

Item honi dagokion multzoa:

Eduki-multzoak: GEOMETRIA. Perimetroak, azalerak eta bolumenak.

Problemak ebatzea.

Erantzun-kopurua: 311. Erantzun zuzenen ehunekoa: %60.5

Erantzun zuzenak, gaitasun-mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%-	%32.3	%47.3	%66.3	%78.9	%100

8. ADIBIDEA

Bi hiruki berdinekin honako hiru irudiok egin daitezke. Jarraian ageri diren baieztapenen artetik zein da zuzena?



- Hiru irudiek perimetro berdina dute A
- A eta B irudiek perimetro berdina dute B
- Hiru irudiek azalera berdina dute C*
- A eta C irudiek perimetro desberdina dute D

Item honi dagokion multzoa:

Eduki-multzoak: GEOMETRIA. Perimetroak, azalera eta bolumenak.

Kontzeptuzko edukia.


Erantzun-kopurua: 311. Erantzun zuzenen ehunekoa: %27.3

Erantzun zuzenak, gaitasun-mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%-	%25.8	%20.9	%21.2	%38.2	%83,3

9. ADIBIDEA

Grafikoan haurrek irakurritako ipuinak irudikatuta ageri dira. Nork irakurri du ipuin gehien?



- Laurak A*
- Vicentek B
- Pablok C
- Mariak D

Item honi dagokion multzoa:

Eduki-multzoa: INFORMAZIOA ANTOLATZEA. Grafikoak irudikatzea eta interpretatzea.

Prozedurak eta estrategiak


Erantzun-kopurua: 311. Erantzun zuzenen ehunekoa: %99.4

Erantzun zuzenak, gaitasun-mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
% -	%96.8	%100	%99	%100	%100

10. ADIBIDEA

Gela bateko ikasleen garaieraren grafikoa arretaz aztertuz gero, ikasleen batez besteko garaiera dela ikusiko duzu.



- 130 y 135 cm A
- 135 y 140 cm B*
- 140 y 145 cm C
- 145 y 150 cm D

Item honi dagokion multzoa:

Eduki-multzoa: INFORMAZIOA ANTOLATZEA. Grafikoak irudikatzea eta interpretatzea.

Prozedurak eta estrategiak

Erantzun-kopurua: 309. Erantzun zuzenen ehunekoa: %49.5

Erantzun zuzenak, mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%0	%29.2	%38.0	%49.6	%76.7	%100

11. ADIBIDEA

Javier eta Begoña bola jokoan ari dira. Javierrek 9 jaurtialdi egin ditu eta lortutako puntuazioak dira: 4, 4, 0, 2, 1, 6, 3, 8, 8. Begoñak, berriz, 6 jaurtialdi egin ditu eta 5, 1, 3, 2, 7, 6 puntuazioa lortu du.

Nor da trebeagoa?

- Javier A
- Begoña B
- Berdin C*
- Ez dakit D

Item honi dagokion multzoa:

Eduki-multzoa: INFORMAZIOA ANTOLATZEA. Probabilitateak kalkulatzea, estatistika. Problemak ebaztea.

Erantzun-kopurua: 309. Erantzun zuzenen ehunekoa: %24.3

Erantzun zuzenak, gaitasun-mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%0	%25.0	%17.8	%22.9	%30.9	%64.3

Ingelesaren arloan lortutako emaitza orokorrak

Probaren deskribapena


Proba honen helburua, Lehen Hezkuntzaren amaieran, ikasleek Atzerriko Hizkuntza irakasgaiaren helburuak, hau da, Ingelesa irakasgaiaren helburuak bereganatu ote dituzten aztertzea da.

Ebaluazioa antolatzeko orduan, Lehen Hezkuntzako curriculumaren baitako hainbat hizkuntz trebetasun hartu dira oinarrian, hain zuzen: Ahozko ulermena, Idatzizko ulermena eta Idatzizko ekoizpena. Ahozko testuen ulermenarekin erlazionatutako itemak %30 izan dira, eta %15, berriz, Idatzizko ekoizpenarekin lotutakoak. Ahozko ekoizpenaren proba egitea ezinezkoa izan denez, azterlan honen baitan kontuan ez hartzea erabaki da.

Gaitasun mailen deskribapena


Maila bakoitzaren baitan ezagupen, trebetasun eta gaitasun zehatz batzuk zehazten dira, eta maila bakoitzeko ikasleek mailari dagozkionak menderatzea ezinbestekoa da. Hasteko, maila bakoitzerako definitu diren gaitasunak maila osatzen duten ikasleek jada bereganatu dituztenak dira. Ikasle bat maila jakin batean sartu bada, aipatu mailari dagozkion trebetasunak eta aurreko mailetakoak menderatzen dituela baieztatu daiteke.

Maila guztien artean curriculumean lantzen diren gaitasunak zehazten dira, zailtasun mailaren arabera; gainera, irakasleek beren lanaren plangintza egiteko lanabes bikaina eskuratzen dute.




150 maila	200 maila	250 maila	300 maila	350 maila	400 maila
<ul style="list-style-type: none">● Bideo grabazio batean aurkeztutako elkarrizketa batean ageri diren berariazko elementu oso sinpleak ulertzen dituzte.	<ul style="list-style-type: none">● Audio zinta batean grabatutako elkarrizketa telefoniko baten hainbat pasarteetan informazio orokorra ulertzen dute. Egitura bakuna eta hiztegi erraza dituen perpaus bat dagokion irudiarekin erlazionatzen dute.	<ul style="list-style-type: none">● Bideo grabazio batean aurkeztutako ahozko testu baten berariazko elementuak ulertzen dituzte.● Kasete batean aurkeztutako ahozko testu baten berariazko elementuen informazio orokorra ulertzen dute eta ondorioak aterratzen dituzte.● Audio grabazio bateko deskribapenaren arabera, objektuak dagokien irudiarekin erlazionatzen dituzte.● Horrez gain, irudien segida bat horiei buruz emandako deskribapenarekin erlazionatzen dute.● Esaldi koordinatuen bitartez idatzitako hainbat jarraibide dagozkien irudiekin erlazionatzen dituzte.● Eguraldiari buruzko testu batetako berariazko informazioa ulertzen dute, eta fenomeno meteorologikoak testuko hiriekin erlazionatzen dituzte.● Postal batetako edukitik egiazko informazioa eta gezurretakoa bereizten dute.● Deskribapen batetatik abiatuta, marrazki baten pertsonaiak ezagutzen dituzte.● Gutun batetako hutsuneak betetzeko gai dira hitz errazak	<ul style="list-style-type: none">● Audio zinta batean grabatutako testuetan, "can" edo "few, "a lot of" bezalako hitzak erabiltzen dituzten elementuen deskribapenak ulertzen dituzte orohar, bai eta bertako elementu zehatzen deskribapena ere.● Perpausaren egitura oso erraza denean, hala nola "there is...", perpausa osatzen duten bi zati nagusiak erlazionatzen dituzte.● Publizitateko iragarki bati buruzko idatzizko testu batean informazio orokorra eta berariazko xehetasun bakunak (askotan erabiltzen diren hitzak) bereizten dituzte. Irudien bitartez testu bat osatzen dute, irudiek diotena idazten dutelarik.● Irudien laguntzarekin, elkarrizketa batetan falta den hitz egokia erabiltzen dute aukeran jarritakoen artetik.	<ul style="list-style-type: none">● Aditz laguntzaileen iragane formak edo "always" bezalako maiztasun adberbioak dituzten perpaus baten bi zatiak erlazionatzen dituzte.● Publizitateko idatzizko testu batetako informazio orokorra eta berariazkoa ulertzen dute.● Ideia sozio kulturalak aipatzen dituen elkarrizketa batetako informazio orokorra eta berariazko ulertzen dute. Irudien bidez adierazitako gustuei buruzko kontaketa batean ageri diren espazioak betetzen dituzte.● Forma irregularreko aditzak dituen elkarrizketa batetako hutsuneak betetzen dituzte, hainbat hitzen artetik aukera egokia eginez.	<ul style="list-style-type: none">● Gutun batetako hutsuneak betetzen dituzte, gutxitan erabiltzen diren hitzak erabiliz edo hitz bereziak erabiliz, hala nola, "hobbies"...

Ikasleen banaketa, heinen arabera



50 puntuko heinak antolatu dira, eta hein bakoitza desbideraketa tipiko bati dagokio. Datu horren bitartez, ikasleek batez bestekoarekiko duten desberdintasuna ezagutu ahal izango da. Banaketa arruntetan, eta horixe da, hain zuzen, gure kasua, populazioaren %90 +/- 1'6 desbideraketa tipikoen inguruan kokatzen da.




Hizkuntza gaitasunak

EAEko ikasleek ebaluatutako hiru hizkuntz gaitasunetan lortutako emaitzak desberdinak izan dira. Guztien gainera azpimarragarria da ahozko ulermenaren proban erantzun zuzenen ehuneko altua (%79,7), baina idatzizko ekoizpenean, berriz, emaitza eskasagoa lortu da, hain zuzen, %42. Amaitzeko, idatzizko ulermenaren probak %64,5 lortu du, probaren batez bestekotik nahiko hurbil (%63,7).

Hizkuntz gaitasunak	Ebaluatutako helburuak	Jarduera eta ítemak	Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (EAE)
Ahozko ulermena	Euskarri desberdinetako (bideo eta audio grabazioak) ahozko testu errazen informazio orokorra eta berariazkoa ulertzea.	32 ítem, 4 jardueretan banatuta.	%79,7
Idatzizko ulermena	Idatzizko testu labur eta errazen informazio orokorra eta berariazko lortzea.	36 ítem, 8 jardueretan banatuta.	%64,5
Idatzizko ekoizpena	Laguntza bisualen eta hizkuntz mailakoen bitartez, idatzizko testu labur errazak osatzea.	25 ítem, 6 jardueretan banatuta.	%42

Erantzun zuzenen batez besteko, hizkuntz trebetasunen arabera



Zenbait alderdi esanguratsu

EAE n egindako probak, orotara, erantzun zuzenen %75 biltzen ditu, izan ere, ezinezkoa izan zen ahozko proba burutzea, hau da, gainontzeko %25 ebaluatzea.

Lehen Hezkuntzako etapa honetan funtsezkoa da hizkuntz gaitasunak ulertzea eta, horrez gain, ikasleekin sistematikoki eta etengabe landu behar dira. Ahozko ulermenaren eta idatzizko ulermenaren probek, bakoitzak, ebaluazioaren %30 bereganatzen dute. Idatzizko ekoizpenari dagokionez, berriz, Curriculumaren Garapenerako Dekretuaren (CGD) arabera Lehen Hezkuntzan agerpen txikiagoa duenez, probaren %15 hartzen du. Gaitasunen arabera egindako ehunekoetan banaketa, etapako curriculumean ematen zaien garran-tziaren isla da.

Ahozko ulermena

Ahozko ulermenaren proban erantzun zuzenek lortutako indizea oso altua da, %76,67, alegia. Lehen Hezkuntzako curriculumak ahozko ulermenari garrantzi berezia ematen diola kontuan hartuta esan daiteke, EAEko ikasleek garapen maila ona lortzen dutela ebaluatutako helburuarekin lotutako gaitasunetan: “Euskarri desberdinetan (bideoa eta audioko grabazioak) aurkeztutako ahozko testu bakunetako informazio orokorra eta berariazkoa ulertzea”. Testuak ulertzeko laguntza bisuala eskaintzen denean, bai bideo bat, bai audio grabazioarekin batera erakutsiko diren irudiak, errazago bereganatzen dute ikasleek testuaren esanahia. Horrez gain, testuetan ageri den egitura eta hitzak errazak dira, eta ikasleen interesen inguruko gaiei buruzkoak, gainera: ikastetxea, familia, bidaiak, lehentasunak, eguneroko jarduerak eta aisialdia.

Idatzizko ulermena

Gaitasun honen baitan beste hainbat gaitasun biltzen dira: gutun testuak, publizitatekoak, informatzaileak, deskribatzaileak, elkarrizketak, jarraibideak, eta abar, orokorrean eta/edo berariaz ulertzea. EAEko ikasleen artean emaitza anitzak izan dira aipatu gaitasunen lorpen mailarekin lotuta; hala, jarraibideak ulertzeko eta testu deskribatzaile eta informatzaileetako berariazko informazioa ulertzeko orduan maila bikaina lortu da EAEko ikasleen artean.

Aipatu gaitasunarekin lotuta lortutako erantzun zuzenak %64,49 izan dira. Idatzizko ulermenaren proban ebaluatutako gaitasunen garapen maila, ahozko ulermenaren proban ebaluatutakoa baino zertxobait baxuagoa da, baina orohar, ikasleak gai dira, gai

ezagun bati buruzko testuetan, egitura eta hiztegi errazak erabiltzen da, amaierako emaitzetan dituztenetan, informazio orokorra eta berariazkoa lortzeko. Gaitasun honi lotuta lortu nahi den helburua: “Testu idatzi labur eta errazetatik informazio orokorra eta berariazkoa lortzea”. Proban hainbat alderdi ebaluatu dira eta lortutako emaitzen arabera, zenbait testuren kasuan, hala nola errezetak, informazio meteorologikoa duten testuak eta pertsonen deskribapenak, asko landu dira gelan eta ia ikasle guztiek menderatzen dituzte. Ondorio bezala zera esan daiteke: gutun testuen eta elkarrizketen berariazko ulermenari dagokionez, ikasleek maila egokia eta onargarria lortu dute.

Zenbait ikaslek arazoak izan dituzte publizitateko testu batetik informazio orokorra eta berariazkoa lortzeko, aukeratzeko hainbat erantzun eman zaizkionean. Horrek argi islatzen du, esparru honetan publizitateko testu gutxi erabiltzen dela eskolan.

Idatzizko ekoizpenak

Hizkuntz gaitasun honen ebaluazioan lortutako erantzun zuzenak %41,96 izan dira. Gaitasun honek hizkuntza ondo ezagutzea eta menderatzea eskatzen du, gaitasunaren baitan gainontzeko hizkuntz gaitasunekin eta hizkuntzaren kodearekin erlazionatutako estrategiak ere ezagutu behar baitira. Gainera, honako gaitasun honek Lehen Hezkuntzako curriculumean duen agerpena aurretik aipatu ditugun Ahozko ulermenarena eta Idatzizko ulermenarena baino handiagoa da.

Ebaluatuko den helburua “Laguntza bisualen eta hizkuntz mailakoen bitartez, egitura erraza duten idatzizko testu laburrak osatzea”. Eta ebaluazioa garatzeko erabili diren ariketen zenbait ezaugarri azpimarratzea komeni da ikasleek gaitasun honetan lortutako maila zehaztu ahal izateko. Lehenik eta behin, ikasleak ez du sormena

erabiltzeko aukerarik izan, izan ere, erantzuna aukeratu egin behar zuten edo erantzun zuzen bakar bat onartzen zuten hutsuneak bete behar izan zituzten. Hortaz, ezinezkoa da ebaluazio honen baitan originaltasuna eta idatzizko ekoizpenaren aukera librea bezalako alderdiak aztertzea.

Errazagoa egiten zaie ikasleei, testu deskribatzaile edo elkarrizketa bat osatzeko zenbait hizkuntz gako aukeran jarri eta horietako bat aukeratzea, eta zailagoa egiten zaio, berriz, gutunetan edo bere gustuen, jardueren eta eguneroko zereginen testu deskribatzaileetan ageri diren hutsuneak betetzeko hitzak aurkitzea.

Hainbat item

1. ADIBIDEA. Ahozko ulermena

Uda Espainian igarotzen ari zen neska ingeles baten eta bere amonaren arteko telefonozko elkarrizketa. Ikasleek, neska ingelesak aipatzen zituen jarduerekin erlazionatuta zeuden edo ez zeuden hainbat elementu aukera behar zituzten.



si	no
a*	b

Erantzun-kopurua: 508. Erantzun zuzenen ehunekoa: %82

Erantzun zuzenak, mailen arabera:


100	150	200	250	300	350
%-	%62,2	%66,9	%85,9	%94,6	%100

Itema 508 ikaslek egin dute. Item erraza dela esan daiteke erantzun zuzenen ehuneko altua kontuan hartuta.

2. ADIBIDEA Ahozko ulermena

Deskribapen bati dagokion marrazkia asmatzea.

"It is very fat. It has four legs, two big ears and a very long trunk."



Erantzun-kopurua: 606. Erantzun zuzenen ehunekoa: %81

Erantzun zuzenak, mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%-	%12,9	%49,9	%92,9	%98,3	%100

3. ADIBIDEA. Ahozko ulermena

Bideo batean, uda etxe ingeles batean igarotzen ari zen hamabi urteko mutil baten eguneroko bizitzari buruzko hainbat une ikus zitezkeen.

Eduardo's pet is ...a cat	a
a parrot	b*
a tortoise	c
a dog	d

Erantzun-kopurua: 1526. Erantzun zuzenen ehunekoa: %97

Erantzun zuzenak, gaitasun-mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%-	%80,5	%96,2	%100	%100	%100

4. ADIBIDEA. Ahozko ulermena

Etxe ingeles batean uda igarotzen ari zen hamabi urteko mutil baten irudiak grabatuta zituen bideo bat ikusi zuten ikasleek.

Mrs Parker visited Mallorca ...three years ago	a
when she was a child	b
last year	c*
last weekend	d


Erantzun-kopurua: 1526 Erantzun zuzenen ehunekoa: %65

Erantzun zuzenak, mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%-	%19,6	%34,7	%50,6	%83,6	% 97,5

5. ADIBIDEA Idatzizko ulermena

Ikus postre bat nola prestatzen den eta behar diren osagaiak azaltzen dituen marrazkia.



Put it all together in a bowl and add the orange juice..... a b c* d e f

Erantzun-kopurua: 296 Erantzun zuzenen ehunekoa: %78


Erantzun zuzenak, mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%-	%17,6	%57,3	%89,3	%86,6	%100

6. ADIBIDEA Idatzizko ulermena

Irakurri arretaz Albert ek bere gurasoei bidalitako postala eta jarraian azaltzen diren galderei erantzun.

Dear Mum and Dad,



This is the beach near our summer camp. I am having a good time here. I am sharing a tent with my three best friends. We are having a lot of fun together.

To:

We go to the beach every day after breakfast. We swim and the monitors organize games and races on the sand.

Mr and Mrs Green
15, O'Connell Street

Yesterday we climbed up the highest mountain near here. We had a picnic

There are..... a. four people in the tent*
a picnic on a mountain the summer camp in the afternoon to the beach in the mornings

Erantzun-kopurua: 1519 Erantzun zuzenen ehunekoa: % 50


Erantzun zuzenak, mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%-	%16,2	%21,6	%43,6	%82,4	%100

7. ADIBIDEA Idatzizko ulermena

Jarraian agertzen den laukian adierazi, hiri bakoitzari dagokionez, testuan adierazitako egoera metereologikoa.

That was the weather in Europe yesterday. As we can see it was not very good. Temperatures were very low in the north of Europe. It was cloudy in London. In Rome it was raining but the temperature was mild. It was a good day in Lisbon, it was sunny. In Berlin it was snowing all day and it was sunny and very cold in Paris.



a b c d

Berlin..... a b C* d

Erantzun-kopurua: 304 Erantzun zuzenen ehunekoa: %75

Erantzun zuzenak, gaitasun mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%-	%27,0	%48,1	%83,9	%91,2	%100

8. ADIBIDEA. Idatzizko ulermena

Jarraian agertzen den laukian aukeratu hiri bakoitzari dagokionez, testuan deskribatzen den egoera metereologikoari dagokion hizkia.

Paris a B* c d

Erantzun-kopurua: 304 Erantzun zuzenen ehunekoa: %53

Erantzun zuzenak, mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%-	%11,9	%36,3	%64,0	%64,6	%100

9. ADIBIDEA. Idatzizko ekoizpena

Osatu gutuna hutsune bakoitzean falta den hitza idatziz.

47 Kings Road
London N13CH

15TH APRIL 1999

DEAR CHRIS,

HELLO, _____ NAME IS KATE ELLISON AND I AM 12. I AM A SCHOOLGIRL. I THINK THAT SCHOOL IS INTERESTING AND I HAVE LOTS OF FRIENDS. (MY)

Erantzun-kopurua: 1519 Erantzun zuzenen ehunekoa: %77


Erantzun zuzenak, mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%-	%20,7	%54,4	%84,3	%96,1	%100

10. ADIBIDEA. Idatzizko ekoizpena

Behatu arretaz marrazkia. Osatu jarraian agertzen den testua hutsune bakoitzean falta den hitza idatziz.

....., Susan is _____ to the radio, Nancy is....



Erantzun-kopurua: 296 Erantzun zuzenen ehunekoa: %20

Erantzun zuzenak, mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%-	%4,9	%4,2	%10,5	%33,4	%78,7

11. ADIBIDEA. Idatzizko ekoizpena

Susaneke bere egunkarian idatzitako oharrek osatu behar dira, eta horretarako, laukitik hitz egokiak aukeratu.



happy want were Paul's sod was wanting

Yesterday afternoon Shirley and I went to _____ house.

Erantzun-kopurua: 309 Erantzun zuzenen ehunekoa: %67

Erantzun zuzenak, mailen arabera:

100	150	200	250	300	350
%-	%25,5	%37,8	%72,4	%98,9	%100

11. ADIBIDEA. Idatzizko ekoizpena

Susaneke bere egunkarian idatzitako oharrek osatu behar dira, eta horretarako, laukitik hitz egokiak aukeratu.

PAUL WAS SICK. HE _____ IN BED.

Erantzun-kopurua: 309

Erantzun zuzenen ehunekoa: %44

Erantzun zuzenak, mailen arabera:


100	150	200	250	300	350
%-	%23,1	%36,0	%28,9	%84,7	%92,2

Emaitzak, estratifikazio-aldagaien arabera

Emaitzarekin erlazionatutako hainbat aldagai


Jarraian zehaztuko diren aldagaiak ikasleek probetan lortutako errendimenduari lotura izugarria dute; eta aldagaiek taldeen arabera izandako banaketa aztertuz gero, egoera anitzak aurkituko ditugu.

Gurasoen ikasketa maila ()*: Sareen eta ereduaren arabera, familien prestakuntza maila aldatu egiten dela ikus daiteke. Adibidez, A eredu itunduan edo D publikoan unibertsitate tituluak dituzten guraso gehiago dago A eta B eredu publikoetan baino.



Unibertsitate ikasketak dituzten gurasoen seme-alabek puntuazio nabarmenki altuagoak lortu dituzte gainontzekoetan baino. Bigarren mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alabek lortu dituzten puntuazioak, lehen mailako ikasketak edo ikasketa baxuagoak dituzten familietako ikasleek lortutakoak baino altuagoak izan dira.


*Urteko irakas orduak (**)*: Sareen eta ereduaren artean desberdintasun agerik aurkituko ditugu urteko irakas orduei erreparaturik gero. Honako aldagai honek erlazio handia du emaitzekin, hau da, zenbat eta irakas ordu gehiago eman, orduan eta emaitza hobekak.



(*) "Familien ikasketa maila gorena" esatean, aitak edo amak lehen aipatu ditugun ikasketa mailen artetik, hots, lehen mailakoak edo baxuagoak, bigarren mailakoak eta unibertsitate mailakoak.

(**)"Irakas orduen kopurua" aipatzean, urteko egutegiaren baitako irakas orduak adierazten dira.

Ikasleek *eskolaz kanpo ingeleseko eskolak* jasotzen dituztela kontuan hartuan behar da, amaierako emaitzetan eragin handia baitu aldagai horrek; eta kontuan hartu behar dira arlo honek astean dituen orduak; ingelesa ikasten hasteko etaparen aldagaiak, berriz, ez du eragin nabarmenik emaitzetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan edo hirugarrenean).



Zehaztu den *mailakatzearen* baitan hizkuntz ereduak –A, B eta D– eta zentroen sarea –publikoa, itundua–, biltzen dira, eta sei talde diseinatu dira. Modu berean, mikrozentroek osatutako lagin bat osatu da (Lehen Hezkuntzako seigarren mailan hamar ikasle baino gutxiago dituzten zentroak).

Zentroaren tamainak ez du eraginik izan Euskal Autonomia Erkidegoan lortutako emaitzetan. Ebaluatu diren gela guztien artean,

ez da inolako desberdintasun nabarmenik antzeman zentro handien eta txikien (mikrozentroak) artean.

Emaitzak, arloen arabera

Sortutako mailei dagokienez (hizkuntz eredu eta sarea), jarraian izandako emaitzak ikus daitezke; hainbat aldagaiak duten eragina (familiarren ikasketa maila, probaren hizkuntza eta urteko irakas orduak eta eskolaz kanpoko ingeleseko eskolak) ikus daiteke, eta horiek oso garrantzitsuak dira emaitzak ulertzeko orduan. Eskola sareen (publikoa eta itundua) eta hizkuntz ereduaren arabera banaketa desberdina dute aipatu aldagaiak. Jarraian, ebaluatutako arlo bakoitzean lortutako emaitzak ikus daitezke


Gaztelaniaren emaitzak, estratifikazio-aldagaien arabera

Mailen arabera lortutako emaitzak aztertzeke orduan, kasu honetan, “familiarren ikasketa maila gorena” aldagaia kontrolatu behar izan da. Bariantza azterketa egin aurretik honako baieztapen hau egin daiteke:

- A eta B ereduak zentro itunduetan ikasten duten ikasleek bestelako zentroko ikasleek baino emaitza hobekatu dituzte.
- A eta B ereduak zentro itunduetan ikasten duten ikasleek lortutako emaitzen artean ez da desberdintasun nabarmenik antzeman.

Hortaz, gaztelaniaren arloari dagokionez, eta lortutako emaitzak aztertuta, bi talde bereiz daitezke: A eta B ereduak zentro itunduen taldea eta gainontzekoen taldea.

Hala ere, baliteke aipatu desberdintasunak bestelako aldagai batek eraginak izatea, eta ez sarearen edo ereduaren aldagaiak.




Ikus daitekeen bezala, hainbat aldagai kontrolatu behar dira eta antzemandako desberdintasunetan eraginik ote duten baieztatu, aitzitik, eragin erabakigarria izango dute emaitzetan.

Familiaren ikasketa maila gorena bezalako aldagaiak izan dezakeen eragina kontrolatu ondoren baieztatu ahal izan da, oraindik ere ereduaren arteko (eredua+sarea) desberdintasunak bertan daudela. Ikasleen errendimenduarekin lotuta antzemandako aldagaiak zehaztasun handiagoarekin aztertzea komeni da.

Matematikaren emaitzak, estratifikazio-aldagaien arabera

Mailen arabera lortutako emaitzak aztertzeko orduan, kasu honetan, “familiaren ikasketa maila gorena” aldagaia kontrolatu behar izan da. Bariantza azterketa egin aurretik honako baieztapen hau egin daiteke:

Hizkuntz ereduaren emaitzak berdinak direnez, bariantza azterketa sareen artean gertatzen dena azaltzera mugatuko da.



Familiaren ikasketa maila gorenaren eta urteko irakas orduen eragina kontrolatu ondoren, sareen artean (publikoa, itundua) ez da inolako desberdintasunik antzeman. “Urteko irakas orduak” aldagaiak eragin handiagoa izan du aipatu desberdintasunak kontrolatzeko orduan.


Ingelesaren emaitzak, estratifikazio-aldagaien arabera

Mailen arabera lortutako emaitzak aztertzeko “familiaren ikasketa maila gorena”, “urteko irakas orduak” eta “eskolaz kanpoko ingeleseko eskolak” aldagaiak kontrolatu dira.

Bariantza azterketa egin baino lehen, honako baieztapen hau egin daiteke:

Hizkuntz ereduaren artean desberdintasunik antzeman ez denez, bariantza azterketa sareen arteko desberdintasunetara mugatuko da.


Familiaren ikasketa maila gorenaren eta urteko irakas orduen eragina kontrolatu ondoren, sareen arteko (publikoa, itundua) desberdintasunak desagerraraztea lortu da, hizkuntz ereduaren kasuan bezalaxe. Aipatu hiru aldagaien artean, familiaren ikasketa maila gorenak du desberdintasunak kontrolatzeko eragin handiena.



95eko ebaluazioan Euskararen lortutako emaitzak

1999ko Lehen Hezkuntzako ebaluazioan ez zen euskara arloari buruzko probarik egin. 1995ean lortutako emaitzak bat datoz EIFE (1, 2 eta 3) azterketekin eta Hezkuntza Sailaren HINEkin.

Hala ere, 1995ean euskara arloan lortutako emaitzak gogoratuko ditugu:



D ereduak B ereduak baino emaitza hobek lortu zituzte, eta B ereduak A ereduak baino hobek. Sare itunduak publikoak baino puntuazio altuagoa lortu du, baina A kasuaren berdina.

Laburbilduz

1995 urtean egindako ebaluazioarekiko, Gaztelanian lortutako emaitzak hobetzea lortu da, baina Matematikan, aitzitik, ez (Ingelesean eta Euskaran ez dago daturik).

Sareen emaitzak erkatuz gero, itunduak publikoak baino puntuazio altuagoa lortu du Matematika eta Ingelesa arloetan. Emaiza horretan familiaren ikasketa mailak eragin handia izan du, bai eta urtean irakas ordu gehiago izateak ere. Haatik, Gaztelanian ere sare itunduak lortu ditu emaitza onenak, baina emaitza hori ez dute lehen aipatu ditugun aldagaiek eragin.

Hizkuntz ereduaren arabeko konparaketa eginez gero, A eta B ereduak gainontzekoak baino puntuazio altuagoak lortu dituzte Gaztelanian. Matematikari eta Ingelesari dagokienez, ez da ereduaren arabeko desberdintasunik antzeman.

ISEI-IVEI erakundeak ikerketa berri bat garatzeko asmoa du, lortutako emaitzekin lotuta ebaluazioaren fasean azaldu ez diren beste hainbat arrazoi sakonki aztertzeko.